

INTECOk Mondragon Unibertsitatea bere segurtasun informatiko sentsore sarera gehitu du

2007/09/17

- Bere ekarpenaz, INTECOren Sentsore Sarean egunero aztertzen den posta elektroniko trafikoaren dibertsifikazioan laguntzen du.

LEON, 2007 / IRAILAK / 13

Mondragon Unibertsitateak, Teknologi eta Komunikazio Institutu Nazionalarekin (INTECO) elkarlanerako akordioa sinatu du eta horren ondorioz, segurtasun sentsoreen sarera gehitu da. INTECO Industria, Merkataritza eta Turismo Ministeriora atxikita dagoen erakundea da.

Akordio honen bitartez, Mondragon Unibertsitateak posta elektronikoan banatzen diren birusekin zerikusia duen informazioa emateko konpromisoa hartzen du eta INTECOk egunero eskaintzen duen informazioaren datuak gehitzen ditu.

Eskaintako informazioarekin, INTECOk <http://www.inteco.es> eta <http://www.alertaantivirus.es> webguneen bitartez, internautari indarrean dauden alerten informazio eta estatistikak eskaintzen dizkio, alerten historikoa eta dohainiko zerbitzu batera harpidetza egiteko aukera ematen du, non posta elektronikoaren bitartez momentuko birusen alerta eta informazioa jaso dezakeen. Bilakaera erakusten duten adierazleak ere sortzen dira, esaterako, posta elektronikoaren arrisku indizea (IPCE). Honek posta elektronikoaren bidez gauzatu ahal den infekzio-arriskua ezagutarazteko balio du.

Egunero 30 milioi posta elektroniko kudeatzen dituen sarera atxikitu da Mondragon Unibertsitatea. Honela INTECOren Sentsore Sarea sortzen duten entitate publiko eta pribatuen zerrenda 100dik gorakoa da.

INTECO sarea osatzen duten kolaboratzaile/sentsoreen artean, Mondragon Unibertsitatea ez ezik, administrazioen kokaturik dauden sentsoreak ere badaude (udaletxeak, diputazio probintzial, gobernu autonomikoak eta ministerioak), unibertsitate eta hainbat entitate pribatu (telekomunikazio operadoreak, internet zerbitzuetako hornitzaileak, teknologia enpresak, etab.). Hauek guztiak segurtasun informatikoarekin sentsibilizaturik daude.

INTECOk garatutako proiektu berriekin elkarlanean aritzeko lehenengo pausu bat besterik ez da hau.

INTECOk Espainia eta Europa Informazio Gizartean arteko bateratasunean ekarpenak egitea du helburu, IKTetan proiektu berritzaileak garatuz eta izaera globala duen proiektu batean Leoneko lurralde-garapena bultzatuz.

Institutuak honako helburuak ditu:

- Informazio Gizartean eta Informazio Teknologian eta Komunikazioan aplikaturiko ikerketa programak garatzea.
- Espainian eta Europan Informazio Gizartean balioa erantsiko duen proposamen akademikoak bultzatzea.
- Informazio eta komunikazio teknologien erabilpena bultzatzen duten proiektuak garatzea.
- Teknologi Berrikuntza Gune ("Cluster TIC") berri bat sortzea Espainian.
- Enpresa munduan eta arlo akademikoaren artean lotura estuak sortzea mundu mailan etengabe garatzen ari den negozio eta berrikuntza gunea izango den Gizarte bat sortzeko. Hau,



Inteco logoa

teknologiaren bultzadan oinarrituko litzateke, sormenean eta ikasketa gaitasunean eta horren arrakastak gure herrialdeko autonomi erkidegoentzat onura ekarriko luke izaera internazionalako talentua dutenen oinarria sortuz.